

Ingurune ekonomikoa

BPGda osagaien arabera. Aldakuntza tasa⁽¹⁾

	URTEKOA		HIRUHILEKOKOA				
	2006	2007	I-2007	II-2007	III-2007	IV-2007	I-2008
Nekazaritza	-9,8	8,0	8,2	11,5	2,0	10,8	4,6
Industria	4,9	3,8	4,9	4,6	3,7	2,3	1,9
Eraikuntza	5,1	4,0	4,5	4,4	4,3	2,9	2,4
Zerbitzuak	3,8	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2	3,6
Kontsumoa	3,9	3,6	3,8	3,7	3,4	3,3	2,9
KEG⁽²⁾	6,0	5,9	6,6	6,6	5,8	4,5	3,6
Eskaria	4,5	4,2	4,5	4,5	4,1	3,7	3,1
Esportazioa	7,5	7,1	6,5	9,0	6,5	6,6	8,3
Inportazioa	7,7	7,3	7,0	9,2	6,7	6,4	8,1
BPGda	4,2	3,9	4,1	4,1	3,8	3,6	3,1

Iturria: Eustat. (1) Bolumen kateatua. (2) Kapital eraketa gordina

Euskal ekonomiaren urteen arteko hazkundea %3,1ekoa izan da 2008ko lehen hiruhilekoan eta hala 2007ko bigarren zatian hasi zen desazelerazioa berretsita geratu da. Edozertara ere, nabarmendu behar da, gure ekonomiaren hazkunde txikiagoa izan bada ere (aurreko hiruhilekoan baino bost hamarren gutxiago eta orain dela urtebete izandako aurrerapena baino puntu bat gutxiago), hazkunde hau Estatuko orokorra (%2,7) baino handiagoa da, argi eta garbi, baita EB-27ri dagokiona (%2,4) baino are handiagoa ere.


Eskariaren ikuspegitik, 2008ko lehen hiruhilekoan aspaldiko partez lehen aldiz barne eskariaren eta BPGdaren bilakaerak berdin-berdinak izan dira (urteen arteko %3,1eko aurrerapena), hau da,

kanpo sektorearen ekarpena neutroa izan dela eta ez dio hamarren bat ere kendu ekonomiaren hazkundeari, aurreko hiruhilekoetan gertatzen zen legez. Bai esportazioen eta bai inportazioen hazkundeak areagotu dira aurreko ekitaldiaren amaieraren aldean (%8,3 eta %8,1, hurrenez hurren) eta, esan berri denez, gure kanpo saldoa orekaturik gelditu da. Beste alde batetik, esan daiteke kontsumoak, kontsumo pribatuaren desazelerazioaren ondorioz (%2,4), indarra galdu duela, kontsumo publikoaren hazkunde zertxobait areagotu delarik (%4,9) ondasun eta zerbitzuetako gastu publikoaren babesean. Aldi berean, inbertsioaren hazkunde, eraikuntzaren eta ekipo ondasunen bultzada txikiagoa dela-eta, moteldu bada ere, barne eskariaren faktorerik dinamikoenetako bat da oraindik ere.

Eskariaren ikuspegitik, lehen sektoreak eta zerbitzuek batez bestekoa baino hazkunde handiagoa izan dute, industria eta eraikuntzako hazkundeak motelagoak izan direlarik. Hala, industria sektorearen urteen arteko tasa %1,9 izan da eta BPGdaren batez bestekoa baino jarduera maila txikiagoa erakusten du urteko lehen hiruhileko honetan, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren txikiagoa izan den hazkunde izan delarik. Eraikuntzak, berriz, urteetan BPGda baino hazkunde handiagoak izan ondoren, joera hori bigarren aldiz hautsi du hiruhileko honetan aurrekoari jarraiki eta %2,4ko hazkunde izan du. Era berean, esan behar da jarduera aldatu egiten dela sektorearen barruan, eraikinetako azpi sektoretik obra zibilarenera, aldatu ere. Azkenik, zerbitzuen hazkunde tasa (%3,6) EAEn oro har gertatzen dena baino handiagoa da, merkataritzakoak ez diren zerbitzuen egoera ona dela-eta (%6,5eko aurrerapena).

Enpleguaren egoera


Biztanleria aktiboa, landuna eta soldatkoa (EAE milatan)



Iturria: Eustat.

2007ko lehen hiruhilekoan bezala, 2008ko lehenean biztanleria aktiboak gora egin du aurreko urtearen aldean (%0,9). Biztanleria landunaren hazkunde, berriz, %1ekoa izan da (Estatuan oro har %1,7koa), eta biztanleria langabeak behera egin du berriro (-%1,5), lanik gabeko 33.600 pertsona daudela. Gauzak horrela, 2008ko lehen hiruhilekoko langabezi tasa %3,3koa da (2007ko aldi berean %3,4koa zen). Hiruhilekoan erregistratutako langabeziari dagokionez %2,3az hazi da (%10,6az, Estatuan oro har). Azkenik, 2008ko lehen hiruhilekoan sektore guztietako okupazioa hazi dela esan behar da: eraikuntzan %3,5, lehen sektorean %1,6, industrian %1,2 eta zerbitzuetan %0,5.


Soldatuko biztanleria kontratu motaren arabera (ehunekotan)



Soldatuko biztanleria %1,6az hazi da 2007ko lehen hiruhilekoaren aldean eta 807.900 pertsona ditu. Haien %76,6ak mugagabeko kontratua du, %20,5ak aldi baterako kontratua eta %2,9ak kontratu gabe eta bestelako egoeretan dauden pertsonak dira. Gauzak horrela, behin-behinekotasunaren bilakaera onuragarria da aurreko ekitaldiko aldi beraren ondoan (%22,1). Beste alde batetik, EINen erregistratu kontratazioari begiratu gero, kontratazio hau behera doan ingurune batean (-%0,6 EAEn eta -%7,2 Estatuan), 2008ko lehen hiru hiletan mugagabeko kontratazioak nabarmenki behera egin du (-%10,4), eta aldi baterakoak, berriz, zertxobait gora (%0,6).

Negoiazio kolektiboa

Negoiazio kolektiboaren jarraipena
(EAEko negoiazio kolektiboak 607.071 pertsona ukitzen ditu)




- **BERRITU GABEKO HITZARMENAK:** Indarraldia amaitu eta aztergai dugun hilera arte berritu ez diren hitzarmenek ukitutako langileak. 585 hitzarmen dira.
- **2008 URTEAN ERREGISTRATUTAKO HITZARMENAK:** 2008an zehar erregistratu diren eta urte horretan indarrean dauden hitzarmenek ukitutako langileak (hilez hil metatutako kopuruak). 74 hitzarmen dira.
- **AURREKO URTEETAKO HITZARMENAK:** Hainbat urtetarako indarraldia duten eta 2007ko abenduaren 31 nbaino lehen erregistratuta, 2008an indarrean dauden hitzarmenek ukitutako langileak. 370 hitzarmen dira.

Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren informazioa erabiliz.

E2008ko lehen hiru hiletan, 40.592 pertsona (%6,7) ukitzen dituzten 74 hitzarmen erregistratu dira. Urtearen hasieran berriztaturik zeuden hitzarmenek negoiazio kolektiboaren eraginpeko pertsonen %48,5a ukitzen zutela kontuan harturik, oraindik %44,8aren hitzarmenak daude berriztatu gabe. Araban sektoreko 9 hitzarmen falta dira berrizteko, haien artean metalaren industria (estatutuaz kanpoko ituna); Bizkaian sektoreko 28 hitzarmen falta dira (%49a, enplegu bidez adierazita, haien artean 2003tik berriztatu gabe dauden metalaren eta zuraren industrietakoak daudela), baina badira beste batzuk, aspaldi luzeagotik berriztatu gabe daudenak, hots: ile apaindegiak (2001etik), abokatuen bulegoak (2000tik), eraikuntzarako materialak (2002tik) eta beira lauaren manufakturak (2002tik). Gipuzkoan sektoreko 26 hitzarmen falta dira berriztatzeko (enpleguaren %22,8a ukitzen badute ere); haietako 13 2003 edo lehenagotik daude berritu gabe. Egoera oraindik geldirik edo dagoen arren, zenbait eremutan aurrerapenak gertatu dira eta, oro har, aurreko urteetan baino egoera hobean gaude. Aurreko urteetan akordioak lortzeko zeuden zailtasunak erakusten dituen beste datu bat negoiazio prozesuen iraupena da. Iraupen hau, 2008an erregistratu diren sektoreko hitzarmenen negoiazio prozesuetan 545 egunekoa izan da, batez beste. Beste alde batetik, enpresako hitzarmenetan %59a, eremu honetako langileen %60a ukitzen dutenak, sinatu gabe

daude. Edukiari dagokionez, nabarmendu behar da berdintasun planen azterketa sartzen hasi dela, lege berriak bultzaturik, eta lberdrolaren hitzarmenean bezala, lan eta familia bizitza elkargarri egitea.

Itundutako soldata igoeren eta inflazioaren bilakaera




(*) En convenios registrados hasta el 31 de marzo de 2008

Berriztatutako hitzarmenetan adostu den soldata igoera (langile kopuruaren arabera haztatutako batez bestekoa) %4,50a izan da, Estatuan oro har baino altuagoa (%3,39), soldata berrikusteko klausulen ondoreak kasu bietan gehitu gabe daudela. 2007rako itundutako igoera (%4,23) baino handiagoa dela esan daiteke, gehienetan erreferentziatzen hartzen den urteen arteko inflazio tasaren igoeraren ondorioz, batez ere. Dena den, hitzarmen hauek araututako pertsonen erosteko ahalmena hobetuz doa oraindik ere. Eremu funtzionalen arabera ikus daitekeenez, sektoreko hitzarmenetan itundutako soldata igoera (%4,66) enpresakoetakoa (%3,47) baino handiagoa izan da. Beste alde batetik, igoerarik handienak Bizkaian eta Gipuzkoan gertatu dira (%5etik gora), zenbait sektoretan lortu diren

akordioen ondorioz, izan ere. EAEn erregistratzen diren hitzarmenak soilik kontuan hartuz gero, soldata igoera %5,05ekoa izan da, zenbateko hau EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzarmenetan negoziatutakoa baino askoz handiagoa delarik (%2,77).

Hitzarmen kolektiboetan itundutako lanaldi murrizketak



Lanaldiari dagokionez, lanaldi murrizketak ezartzen dituzten hitzarmenen portzentajea gero eta txikiagoa da (berriztatutakoen %28,2). Ohi denez, murrizketa adosten duten hitzarmenen portzentajea EAEn erregistratutako hitzarmenen artean handiagoa da (%36,8), EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzarmenetan portzentaje hori %14raino jaisten delarik. Murrizketaren zenbatekoa (urteko ordu bat) 2007an indarrean zeuden hitzarmenetakoa baino txikiagoa da eta orain dela urte batzuk adosten zirenak baino askoz txikiagoa. Kontuan hartu behar da hitzarmen asko berriztatu gabe daudela eta hitzarmen horietako eremuetan formalki lanaldia ez dela aldatzen, kasu batzuetan orain dela hainbat urte. 2008rako

berriztatu diren hitzarmenetan itundu den batez besteko lanaldia 1.705 ordukoa izan da, 1.709koa sektoreko hitzarmenetan eta 1.678koa enpresakoetan, hain zuzen ere. EAEn eragina duten Estatuaren eremuko hitzarmenetan adostutako batez besteko lanaldia handiagoa da (1.711 ordu) EAEn erregistratutako hitzarmenetako lanaldia (1.702) baino.

Lan gatazkak

EAEn egindako lan grebak (behin-behineko datuak)

		2003	2004	2005	2006	2007	2008(*)
ARA-BA	Grebak	38	41	36	57	42	15
	Partaideak	6.883	11.680	6.274	6.359	4.916	2.449
	Egunak	43.795	47.338	32.990	12.036	7.940	2.844
BIZ-KAIA	Grebak	118	116	85	109	91	31
	Partaideak	24.043	47.620	39.817	44.543	27.873	6.682
	Egunak	128.756	197.233	56.673	122.216	68.507	9.141
GIPUZ-KOIA	Grebak	65	86	55	58	71	14
	Partaideak	43.868	41.758	7.025	11.675	13.703	5.073
	Egunak	167.315	361.584	16.525	34.181	36.050	6.971
EAE	Grebak	221	243	176	224	204	60
	Partaideak	74.794	101.058	53.116	62.577	46.492	14.204
	Egunak	339.866	606.155	106.188	168.433	112.497	18.956

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
Egunak: Lan egin gabeko egunak. (*) urtarriletik martxora

2008ko lehen hiruhilekoan gertatu diren grebak 2007ko aldi berean gertatutakoak baino gehiago izan dira, bai greba kopuruari dagokionez, baita partaide eta lan egin gabeko egunez mintzo bagara. Esan behar da, oro har lan gatazken igoera hau hiru lurralde historikoetan gertatu dela.

Horrela, 2008ko lehendabiziko hiru hilabeteen tarteetan kontuan harturik, EAEn guztira 60 greba erregistratu dira. Greba hauetan 14.204 pertsonak parte hartu dute eta lan egin gabeko 18.956 egun eragin dituzte. Zenbaki hauek aurreko ekitaldiari dagozkionekin konparatuz gero, greben kopuruak gorantz egin du (%42,9), baita parte hartu dutenen kopuruak (%79,2) eta lanik egin gabeko egunenak ere (%41,2).

Greben motiboari dagokionez, haien %58,3a negoziazio kolektiboko desadostasunetan sortu ziren; eta, honelakoetan ohi denez, eraginik handiena greba hauexek izaten dute, haiek eragin baitzuten grebengatik lanik egin gabeko egunen %74,6a urteko hiruhil hauetan. Hitzarmenarekin zerikusirik ez zuten soldatei buruzko erreklamazioek greben %13a eta lan egin gabeko egunen %11 eragin zituzten.

Egindako greba guztietatik, 57 enpresaren eremukoak izan dira eta 3 sektorekoak, azken hauek lanik egin gabeko egun guztien %10,6a eragin zituzten. Enpresako eremukoetan, %68,4a sektore pribatukoak ziren eta eremu horretako lan egin gabeko egunen %34,5a eragin zuten. Hartara, ikus daitekeenez, sektore publikoan egindakoetan pertsona gehiagok parte hartu zuten (11.050 pertsonak sektore publikoko grebetan eta 2.168 pribatukoetan) eragin handiagoa izan dutelarik.

Lurraldeen arabera aztertuta, lan gatazkak oro har gero eta gehiago direla ikusten da. Bai Araban eta bai Bizkaian gatazkekin zerikusia duten aldagai guztiek gora egiten dute; Gipuzkoan, berriz, bilakaera ez da izan hain kaltegarria. Hala, greba kopuruak %36,4az gora egin du Araban eta %82,4az Bizkaian, partaide kopuruak, berriz %207,7az gora egin du Araban eta %24,6az Bizkaian; eta lan egin gabeko egunak %237,8 eta %84,2 gehiago izan dira hurrenez hurren. Gipuzkoari dagokionez, greba kopuruak ez da aldatu, parte hartzaileek %186,8az gora egin dute eta lan egin gabeko egunak %8,6an murriztu dira.

Enplegua erregulatzeko espedienteak

Euskal Administrazioak baimendutako enplegua erregulatzeko espedienteak

	Espedienteak ⁽¹⁾	Ukitutako langileak ⁽¹⁾			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Amaiera
2003	292	12.035	155	8.624	3.256
2004	261	5.614	25	3.478	2.111
2005	328	6.158	41	4.714	1.403
2006	173	3.338	4	1.704	1.630
2007	282	4.815	17	3.856	942
2008(*)	46	786	1	410	375


(1): Euskal Administrazioak baimendutako espedienteak. (*) Martxora arte metatutako datuak. **Iturria:** Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.

2008ko lehen hiruhileko osoan EAEn guztira enplegua erregulatzeko 46 espediente erregistratu dira eta espediente hauek 786 langile ukitu dituzte; zenbaki hauen arabera, espedienteak eta ukitutako langileak jaitsi egin dira, aurreko ekitaldiko aldi beraren aldean, hurrenez hurren %62,9 eta %51,9ko beherakadak izan dituztela. Esan behar da behera egin dutela bai murrizketa espedienteek ukitutako langileek (-%85,7) eta bai eteteko espedienteetakoek (-%67,9), baina amaierako espedienteek ukitutakoek, berriz, gora egin dutela (%7,1). Murrizketako espedienteek pertsona bat ukitu dute, etetekoek 410 pertsona eta amaierakoek 375 langile. Espedienteok

eragin dituen kausari begiratuz gero, kopurutsuenak finantzazko kausak izan dituztenak izan dira (26 espediente eta ukitutako 397 langile), aurreko ekitaldiaren aldean igo egin direlarik (espedienteen igoera %62,5ekoa izan da eta ukitutako pertsonena %92,7koa). Era berean, eskariaren kausazko espedienteak ere (247 langile ukitzen dituzten 8 espediente) igo egin dira aurreko ekitaldiaren aldean (hurrenez hurren %100 eta %648,5eko igoerak). Finantzazkoak eta eskarizkoak ez diren kausak eragindako espedienteek, berriz, (12 espediente eta ukitutako 142 langile izan dira) behera egin dute, bai kopuruz (%88,5) eta bai ukitutako pertsonen dagokienez (-%89,8). Azpimarragarria da espediente hauek eragindako pertsonen %79,5a (625 pertsona) industria sektorekoak direla eta espediente hauen ondorioa, gehienetan (351 pertsona) kontratuaren amaiera izan dela. Espedienteen %35a (ukitutako enpleguaren %17a) zerbitzuetan gertatzen dira eta ondorioak gehienetan (115 pertsona) aldi baterako eteteak izan dira. Eraikuntzan espedienteen %8,6a gertatu da (ukitutako enpleguaren %3,3a); zehazkiago, 26 pertsona gertatu dira ukituta: haietako 14k enplegua aldi baterako etenik izan dute eta gainerakoek lan kontratua amaitu egin zen.

Lan istripuak

Ezgai egoeran egon diren istripua izandakoen aldakuntza (ehunekotan)



(*) Martxora arte metatutako datuak. **Iturria:** Osalan. Eusko Jaurlaritzako

2008ko lehen hiru hiletan EAEn bajadun istripua izan duten langileak (12.323 pertsona, lanaldiko zein *in itinere* istripuak eta lanbide gaixotasunak ere barne direla) %17,6az jaitsi dira aurreko ekitaldiko aldi beraren aldean. Esan behar da jaitziera hori lanaldiko istripuek (10.779 izan dira) izan duten %17,3ko beherakadari zor ziola, *in itinere* ukitutako pertsonak ere (1.146), %29,4az jaitsi direlarik; lanbide gaixotasuna izan dutenak, berriz (398), %32,7az igo dira.

Arreta lanaldian istripua eta ondorioz lan baja izan duten pertsonen jartzen badiugu, azterketa sektoreka eginez gero, sektore guztietan ikusi ahal da istripu kopuruak beherakada orokorra izan duela. Hala beherakadarik handiena eraikuntzan gertatzen da, istripua izan duten 1.840 pertsona daudelarik, beherakada %24koa izan baita. Haren ondoren

nekazaritza eta arrantzaren sektorea dator: bertan 201 pertsonak izan dute istripurik eta, beraz, beherakada %23koa da. Jarraian industriaren sektorea dago, han istripua 4.337 pertsonak izan baitute, beherakada %18,4koa delarik. Azkenik zerbitzuen sektoreak, istripua izan duten 4.401 pertsona dituelarik, beherakadarik txikiena izan du, hau da, %12,7a. Lanaldian gertatutako istripuen larritasunari dagokionez ere, 2008ko lehen hiruhilekoan bilakaera onuragarria dela ikus daiteke kasu guztietan, istripua izan duten pertsonen kopuruak behera egin baitu, bai istripu arinetan (10.691, hau da, %17,3 gutxiago), bai larrietan (75, eta %21,1eko beherakada) eta bai hilgarrietan (%18,8ko beherakada); aipatutako aldi horretan lanaldian izandako istripuagatik hil diren pertsonak 13 izan dira.

Istripuen bilakaera hau, enplegua hazten ari deneko testuinguru batean gertatzen ari da. Hala, istripuak eta biztanleria landunaren bilakaera elkarren aldean jartzen badiugu (lanaldian istripua izan duten pertsonak lana duten mila pertsonako), istripuen eragina txikiagotuz doala ikus daiteke. Zentzu honetan, 2008ko lehen hiru hiletan, mila landuneko 11,1 istripu izan dira lanaldian (2007ko aldi berean 13,5 izan ziren). Gauzak sektoreka aztertuz, joera sektore guztietan berbera dela ikus daiteke. Hala, lehen sektorean indize hau mila landuneko lanaldiko 16,2 istripuetara heltzen da (2007ko lehen hiruhilekoan 21,4 izan ziren), industriaren sektorean 17,3 dira (21,4 2007an), eraikuntzan 21,3 (29,1 2007an) eta zerbitzuetan 7,1 (8,1 2007an). Gauzak horrela, eraikuntzak berririo ere mailarik altuenak ematen ditu indize honi dagokionez, sektore honetan indizeak izan duen beherakada handia azpimarratu behar bada ere. Hau dela-eta, gainerako sektoreekiko diferentzia, batez ere industriarekiko, txikiagotuz doa.